



BERGARA
UDAL ALDIZKARIA



BERGARA
izan, bizi, ekin



Bergarako
Udala

**BIZI
KULTURA
KULTURAREKIN
BERGARA BIZI**



GORKA ARTOLA ALBERDI
BERGARAKO ALKATEA

AURKIBIDEA

- 2- UDALETXETIK
- 3- ZTB JARDUNALDIAK
- 4- 5- IZAN, BIZI, EKIN
- 6- LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA
- 7- ERALDAKETA SOZIALA
- 8- TURISMO PLANA
- 9- AROZTEGI ARETOAN KULTURARI EKARPENA
- 10- BERGARA 2030 EGIN HERRIXA PLAN ESTRATEGIKOA
- 11- BERDINTASUN PLANA
- 12-13 NDANK NDANK-EKO ELI DOMINGUEZI ELKARRIZKETA
- 14- MEMORIA BERRESKURATU
- 15- ZUBIETA ETA MASTERREKA KALEETAKO LANAK
- 16- POL-POL MENDI ELKARTEKO AITOR ERAÑARI ELKARRIZKETA
- 17- JORRAN. ORTU KOMUNITARIOAK
- 18-19 LABURRAK
- 20- LABORATORIUM MUSEOA. KOLABORAZIOA
- 21- DEBAGOIENA 2030. KOLABORAZIOA
- 22-23 ALDERDIEN IRITZIAK
- 24- UDAL GOBERNUA. HARREMANETARAKO BIDEAK

2021eko uztaila

© Argitaratzailea: Bergarako Udala
Egilea: Mundu Mira Kooperatiba Elkartea
Azaleko argazkia: Javier Vicente Rudman

HELMUGA ARGI

Lehen aldia da bide honetatik zuengana zuzentzen naizena. Izan ere, urte askoan egin ez den udal aldizkaria berreskuratu dugu. Herrigintza egiteko oinarritzko zutabeetako bat baita herritarrekiko komunikazio zuzena. Eta hala izan da gobernuan sartu ginenetik, orain bi urte.

Bi urte, legealdi erdia. Une aproposa atzera begiratzeko. Esan dezaket izan dela autoan bidean zoazela elurra hasten duen une hori bezalakoa. Hau da, zure helmuga argi duzu, kalkulatu duzu bidea nola egin behar duzun ezagutzen eta aurreikusten dituzun baldintza horien arabera, baina elur malutak gero eta handiagoak direnean, eta bidea erabat zuritu denean, bazterrean gelditu, bidea nola dagoen ikusi, aurrera jarraitzeko gurpiletan kateak jarri, pieza guztiak ahokatu eta berriz ere martxa hartzen duzu. Egoerak eskatzen duen abiadurara moldatuta, baina etenik gabe, beti aurrera.

Eta hori egin dugu. Argi dugulako nondik gatozen, nora heldu nahi dugun eta nola egin nahi dugun bidea. Gogoz eta ilusio handiz ari gara, eta arituko gara aurrerantzean. Ideia asko ditugu eta proiektu andana esku artean. Zubieta eta Masterreka kaleen berritzea egingo dugu, herritarrentzat ortu komunitarioak jarriko ditugu, gobernantza eredu berrietan oinarrituta eraldaketa soziala bultzatuko dugu. Bergara feminista, euskalduna, jasangarria, koloretsua... sortzen jardungo ditugu datozen bi urteak ere. Izan, bizi, ekin.


CON EL DESTINO CLARO

Es la primera vez que me dirijo a vosotras y vosotros a través de este canal. Porque acabamos de recuperar la revista municipal que no se ha publicado durante los últimos años. Porque uno de los pilares básicos de la construcción de un pueblo es la comunicación directa con la ciudadanía. Y así ha sido desde que entramos en el gobierno, hace ya dos años.

Dos años, media legislatura. Un buen momento para mirar atrás. Puedo decir que este tiempo ha sido algo como ese momento en que empieza a nevar cuando te desplazas en coche. Es decir, tienes tu destino claro, has calculado cómo vas a hacer el trayecto basándote en las condiciones que conoces y prevés, pero cuando los copos de nieve son cada vez mayores, y la carretera se ha blanqueado por completo, te detienes en el arcén, compruebas cómo está la vía, colocas las cadenas en las ruedas, encajas todas las piezas y vuelves a ponerte en marcha. Adapta la velocidad a la situación del momento y avanzas, sin prisa, pero sin pausa, y siempre adelante.

Y eso hemos hecho. Porque tenemos claro de dónde venimos, a dónde queremos llegar y cómo queremos recorrer el camino. Estamos trabajando con ganas y mucha ilusión, y así lo haremos en adelante. Tenemos muchas ideas y muchos proyectos entre las manos. Vamos a realizar la renovación de las calles Zubieta y Masterreka, vamos a poner huertos comunitarios para la ciudadanía, vamos a impulsar la transformación social en base a los nuevos modelos de gobernanza. Los próximos dos años los dedicaremos a crear una Bergara feminista, euskaldun, sostenible, colorida... Ser, vivir, actuar.

Urriaren 19tik azaroaren 14ra egingo dira ZTB jardunaldiak



Zientzia, teknologia eta berrikuntza ardatz dituzten ZTB jardunaldien edizio berria egingo da aurten. Hainbat gai, eta formatu desberdinetan ondutakoak uztartuko ditu aurtengo eskaintzak ere. Bergarako Udalak Garapen sozio-ekonomikoa arloaren eta Laboratorium Museoaren bidez antolatzen ditu jardunaldiok, hainbat eragile eta herritarren elkarlan eta babesarekin.

Iaz lehen hitzaldia Javier Tejada Palaciosena izan zen, Goienagusirekin elkarlanean antolatutakoa.

Maiz, jende askorentzat urruti dagoen gaia da zientziarena. Azken hilabeteotan, aitzitik, gure egunerokoan beharrezkoa den elementua dela agerian geratu da. Kultura zientifikoaren lanketan ekarpena egitea bada jardunaldi hauen helburuetako bat, Laboratorium Museoarena bezalaxe. Antzera gertatu da teknologiarekin, izan ere, digitalizazioak hainbat esparrutan “behartutako lurreratzea” egin behar izan baitu. Bi horien konfluentzia, berrikuntzarekin batera, dira ZTBren DNA.

Jasangarritasuna, covid-19a, kuantika, emakume zientzialariak eta Martera espedizioa izango dira aurten jorratuko diren gai nagusiak. Hauen baitan gai zehatzagoak landuko dituzten hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak, mahai-inguruak, formazioak... eskainiko dira. Osasun egoerak horretarako aukera ematen badu, Wolfram Encounter-a ere berreskuratuko da ohiko formatuan.

Gai ezberdinak, adin tarte guztietako pertsonen interesak asetzeko. Hori izan da egitaraua prestatzen jardun duen taldearen helburuetako bat.

Iaz, covid-19ak eragindako egoerara moldatu behar izan ziren jardunaldiak, eta formatua aldatu behar izan zitzaion hainbat ekimeni. Esaterako, streaming bidez eskaini ziren hainbat hitzaldi eta ikastaro. Aurrez aurreko formatuarekin aurretik heldu ez ziren leku askotara salto egin zuten jardunaldiek bide honetatik, eta emaitza oso ona izan zen, arrakastatsua. Horregatik, online eskaintzari eutsi egingo zaio aurten.

Urriaren 19an hasiko da 2021eko ZTB, erakusketa baten inaugurazioarekin, eta ia hilabete iraungo du jardunaldiak, azaroaren 14an amaitu arte.

La edición de este año de las jornadas sobre ciencia, tecnología e innovación ZTB se celebrará del 19 de octubre al 14 de noviembre. Ofrece una oferta para público de diferentes edades y con intereses varios, con temas y formatos muy dispares. Tras el éxito del formato vía streaming de la pasada edición, este año se mantiene la oferta online.

Hoja de ruta para garantizar el bienestar de la ciudadanía de Bergara

El equipo de Gobierno de Bergara ha elaborado un plan para construir una nueva Bergara en los próximos años. El plan Bergara, izan, bizi, ekin (ser, vivir, actuar) que se presentó en febrero en un acto celebrado en Seminarixoa, consta de 18 objetivos que se desarrollarán a través de numerosos proyectos.

El Gobierno quiere construir en colaboración con la ciudadanía y agentes del municipio "una Bergara amable que facilite la convivencia desde la sostenibilidad, el feminismo y la justicia social", en palabras del alcalde Gorka Artola.

¿Qué Bergara visualizamos para dentro de unos años? Esa pregunta ha sido el punto de partida para realizar este trabajo. "Hemos visualizado esa imagen del futuro y hemos dibujado la hoja de ruta para llegar a nuestro destino, que es este plan", explica Artola. Es un plan medible y adaptable a las circunstancias si la situación así lo requiere.

El Gobierno municipal se ha comprometido a comenzar a trabajar en 64 proyectos durante el año 2021. Proyectos de muy diversa índole y envergadura. Como por ejemplo: la urbanización de las calles Zubieta y Masterreka; proyectos con el euskera como elemento integrador; recuperación de la memoria histórica en colaboración con entidades memorísticas; garantizar las necesidades básicas de la ciudadanía, facilitando material escolar, o adaptando las viviendas municipales a las necesidades de las personas; crear zonas de referencia para mujeres; dar espacio de decisión a la juventud a través de un foro, etc.

Herritarren ongizatea bermatzea helburu duen Bergara izan, bizi, ekin plana egin du Udal Gobernuak. Gobernuak, herritarrekin eta herriko eragileekin elkarlanean, Bergara atsegin bat eraiki nahi du; jasangarritasunean, feminismoan eta justizia sozialean oinarritutako bizikidetza erraztuko duena. 2021. urtean 64 neurriren lanketarekin hasteko konpromisoa hartu du Gobernuak.

MEMORIA PARTEKATUA BULTZATU BERGARAN

- Gerra eta gerra ondoko gertaeren txostena egin.
- Gerra eta gerra ondoko biktimei erreparazioa egin.
- Euskararen historia soziala Bergaran ikertu.



EUSKARA GIZARTEKO ELEMENTU BATERATZAILEA BIHURTU

- Euskara premia berezia duten haur eta familientzat aholkularitza zerbitzua sortu.
- Haur eta gazteen eskolaz kanpoko mundua euskararen arnagune izateko proiektua lantzea.
- Harrera plana berritu, euskara aintzat hartuz.
- Euskara lan munduan txertatzeko proiektua garatzea.

UME ETA GAZTE GUZTIEN ONGIZATEA BERMATZEKO ESKOLAK KOMUNITATEKO ERAGILE BIHURTU

- Hezkuntza mahaia sortu.
- Eskolen arteko zubiak eraikitzeke plana burutu.
- Oinezbusa.
- Guraso Eskolak.





- Eskolekin zerbitzu-ikaskuntza programa proposatu eta bultzatu.
- Bizi Poza jaialdia: urteko dinamika sortzea.

KIROLA, GIZARTE KOHESIORAKO TRESNA

- Kirol instalakuntzen inbertsio plana burutu.
- Kirol instalakuntzen inbertsio plana egikaritu.
- Eskola kirola birplanteatu.

BELAUNALDI ARTEKO HARREMANAK SORTU

- Zabalotegin belaunaldien arteko harremanetarako proiektua egin.
- Fraiskoazuri eremua eraberritu guñe estalia sortuz.
- 2021 azterketa eta prozesua (gidatua) eta 2022 lanak hasi.

AUZOEEN GARAPEN OREKATU ETA JASANGARRIA BULTZATU

- Bergarako auzoen diagnostiko integrala egin.
- Angiozartarren Angiozarren zahartzeko proiektu pilotua garatu.
- Etxebizitzaren alokairua sustatzeko eraberritze obra egiteko dirulaguntzetan auzo eta alde zaharrari lehentasuna eman.



BERGARARRON OINARRIZKO BEHARRAK BERMATZEA

- Etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko plana egin.
- Udal etxebizitzak herritarren beharretarako egokitzea.

- Eusko Jaurlaritzak estaltzen ez dituen gizarte larrialdietarako laguntzak bermatu.
- Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonekin bidaidetza programa martxan jarri.
- Bergarako ikasle guztiei digitalizaziorako oinarritzko baldintzak bermatu.

BERGARARRONTZAT LAN DUINA BULTZATZEA

- Udaleko kontratazioetan klausula sozialak: berdintasunekoak eta ingurumenekoak sartu.
- Udalaren kontratazioetan ekonomia soziala bultzatu.
- Udal langile eta ordezkarietara klausula sozialen inguruko formazioa egin.
- PERCOa egikaritu.

BERGARA ATSEGIN ETA JASANGARRIA ERAIKITZEA

- Bidegorri sarea bukatu eta herri barruko sarea egin.
- Zebrabide irisgarriak.
- Bizikletentzat aparkalekuak ireki.



- Sentsibilizazio kanpaina hondakin bilketa selektiboaz (Mankomunitatetik).
- Zubietan urbanizatu.
- Autoen mugikortasuna mugatu alde zaharrean.
- TAO sistema berrikusi.
- San Joxepen eguneko zentro arina martxan jarri.

BERGARAKO BIODIBERTSITATEA BABESTU ETA ZAINTZEA

- Bergara eukalipto gabeko herria.

LEHEN SEKTOREA ETA HERRI JASANGARRIA UZTARTUKO DITUEN POLITIKAK SUSTATU

- Ortu komunitarioak proiektua egin.
- Lur publikoen politika definitu.
- Lur publikoak elikadura subirautezako bidean jartzea.
- Azoka biziberritzeko planetik eratorritako ekintzak garatu.

GAZTEEN INPLIKAZIOA HERRIGINTZAN ERRAZTU

- Gazteen foroa sortu.
- Haur eta gazteentzako kirol gunea sortu.

- Etxeen alokairurako laguntzak hobetu eta interes sozialera bideratu

BERGARAREN ERALDAKETARAKO KULTUR MEDIAZIOA SUSTATU

- Kultur programazioa kultur eragileekin batera sortu.
- Kulturaren emakumeen partehartzea bultzatzeko ahalduntzea landu.
- Arrizuriaga eraikineko egonkortze lanak.
- Arrizuriagarako kultur proiektua egitea.



EMAKUMEENTZAKO ESPAZIO ERREFERENTEAK SORTZEA

- Emakume etxearen proiektua mugimendu feministarekin diseinatu.
- Berdintasun plan berria diseinatu mugimendu feministarekin.
- Zaintza duinerako ekintza plana burutu.
- Emakumeen etxea emakume migrante eta aniztasun funtzionala daukaten emakumeen erreferentzia bihurtzea.

AUZOLANA KOMUNITATEA ERAIKITZEKO TRESNA BIHURTU

- Auzolana burutzeko plana egin eragileekin batera.
- Seminarioko patioa txokoa ikastolarekin txukundu.
- San Martineko patioa behin-behineko eskuartzea.
- Eskalatzailerekin eremu bat identifikatu eta umeendako moduko toki bat prestatu.
- Auzolan deialdi lehiaketa bat egin.
- Auzolanaren Astea egin.

2023RAKO BERGARAN CO2 ISURKETAK % 10-20 MURRIZTU (2030ERAKO % 40)

- Enegia plana egin.
- Agorrosineko energia plana egin.
- Eraikin publikoetako energia kontsumoa kontrolatu.

BERGARAREN ERALDAKETA SOZIALA SUSTATU

- Bergaran eraldaketa soziala bultzatzeko prozesua herritarrekin batera martxan jarri.



Lan-munduan euskara sustatzeko egitasmo berria abiatu du Bergarako Udalak

Aditu guztiak bat datoz esparru sozioekonomikoa dela euskararen normalizazioaren ikuspegitik lehentasun handieneko arloetako bat. Ildo horretatik, udal gobernua *Bergara izan, bizi, ekin* planean lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko proiektua garatzea aurreikusi du.

Ez gara hutsetik hasiko, lehenago ere bideratu izan delako hainbat ekimen bai eskualdean eta baita herrian bertan ere arlo horretan: badira euskar-plan integralak dituzten enpresak; badira Lantokiko prestakuntza edo DUALA euskaraz eskaintzen dutenak, eta badira, halaber, Euskaraldian parte-hartze aktiboa izan dutenak.

EMUN aholkularitza enpresaren parte hartzearekin, Udaleko Euskara eta Garapen sozio-ekonomikoa departamentuek diseinatu dute dagoeneko oinarritzko egitasmo bat eta osatuta dago egitasmoaren jarraipena egingo duen lan-mahaia ere, enpresetako eta gaiarekin lotura duten bestelako entitateetako ordezkariak biltzen dituen. Maiatzaren 26an aurkeztu zitzaizen egitasmoa lan-mahaiko kideei eta orain abian jartzeko ordua da.

Hiru-lau urterako egitasmoa garatu nahi litzateke eta aurtengo egiteko nagusia enpresa bakoitzean lantalde txiki bat osatu eta bertako hizkuntza egoeraren autodiagnostikoa egitea izango da. Horretarako aplikazio informatiko berezi bat erabiliko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresen eskura jarriko duena.

Autodiagnostikorako tresna betetzea udazkenean egitea aurreikusten da, eta orduan jarriko dira enpresek inarmanetan EMUNeko eta Udaleko teknikariak, lana bideratzeko moduaren gaineko beharrezko azalpenak emateko.

El Ayuntamiento de Bergara lanza un nuevo proyecto para fomentar el euskera en el mundo laboral. Como coinciden las personas expertas en el tema, el ámbito socioeconómico es una de las áreas prioritarias desde el punto de vista de la normalización del euskera. Razón por la que se va a incidir en este ámbito, que no parte desde cero.

“Gure inguruan duen maila berean kokatu nahi dugu euskara Ecenarro barruan”

Begarako Ecenarro kooperatiba da lan-munduan euskara sustatzea helburu duen taldeko kideetako bat. Hasi berriak dira euskara plana lantzen, eta Hugo Montalvo kooperatibako komertzialaren iritziz “oso momentu egokian jaso dugu ekimen honen berri”. Euskaldun askok osatzen du kooperatiba, baina konturatu dira estatutuetan ez dagoela euskararen gaia jasota, eta Bergaran dagoen euskararekiko konpromiso mailatik urrun dagoela. “Kontseilu Errektoreak euskara taldea sortzea proposatu zen. Azterketa bat egingo da ezagutzeko benetan zein mailatan dagoen euskara gurean, eta langileek noraino eraman nahi duen gaia”, Montalvoren esanetan. Lanketarekin hastear zirela jo zuten Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura, eta orduan ikusi zuten denboran bat datorrela Udalaren asmoarekin.

Gogotsu daudela dio Montalvok, eta egunerokoan egiten duten hori “ofizializatu” nahi dutela prozesuaren bitartez. “Taldean parte hartzeak lagunduko digu kooperatibak egin behar duen prozesuan. Bertan dauden entitateak nola dauden, zein gauza egin dituzten ezagutzea aberasgarria izango da guretzat”. Lau urtetan garatu nahi dute euskara plana.

Herritarren beharrei erantzun kolektiboa emateko tresna

Esperientzia eta proiektu komunitarioak sustatzeko helburua duen ekimena garatzen ari da Bergarako Udala Olatukoop, HUHEZI eta Debagoiena 2030ekin elkarlanean. Herritarren beharrak entzun eta horiei erantzun kolektibo bat emateko tresna bat izango da. Bergarak bere etorkizuna eraikitzeko dituen erronkez jabetzea du oinarri, horiek ondo ulertuz eta gainditzeko proiektuak definituz.

Tokiko eragileen arteko proiektu komuna da, eta horretarako, herriko eragile eta norbanakoen elkarlana sustatuko da, herritarren bizitzak erdigunean jarri, eta bertatik alternatibak sortzen.

Bergarako herritar talde baten kezka eta beharretatik eman zitzaien hasiera proiektuari. “Azken urtean bizitakoak eta pandemiak erakutsitako gabeziak azaleratu izanak bultzatu zuen Udalaren eta komunitatearen arteko elkarlana. Tokiko proiektu eraldatzaileen bidez datozen aldaketei aurre egiteko alternatibak eta tresnak prestatzeko momentu garrantzitsua da”, Ander Zangitu eta Jokin Guridiren hitzak dira. Proiektuan buru belarri ari dira lanean, une honetan Laboratorium Museoa, Udalak Mizpildi kaleko 2. zenbakian duen lokala atontzen duen bitartean.

Herritarrek hartzeko espazio fisikoa izango du, hortaz, proiektuak. Bertan jardungo dutenek lan hauek egingo dituzte: herritarren beharrak identifikatu eta entzun; herritarren eta Udalaren arteko lotura landu, bien arteko zubi lana eta lankidetzak bultzatuz eta proiektuak aurrera eramateko dinamizazioa, formazioa eta aholkularitza eskaini.

Lankidetzak modu hau ez da berria Bergaran. Izan ere, 1970. hamarkadan herritar mugimendu oparoa gauzatu zen: Bergarako Kultura Ekintza, Alkartu Nai eta Udalaren artean sortutako dinamika. Eta gaur egun ditugun azpiegitura asko lankidetzak honen emaitza dira: UNED, Aransgi, Zine Kluba, Jubilatuen Etxea, Zientzia Museoaren hastapena, haurtzaindegia...

“Atzera begirada honek erakusten digu herrian jorratu daitekeela horrelako dinamika bat. Bergarako etorkizuna eraikitzeko momentua da, horretarako eragile guztien arteko elkarlana ezinbestekoa da”, aldarrikatu dute Zangituk eta Guridik.

1970. hamarkadan Bergarako Kultura Ekintza, Alkartu Nai eta Udalaren artean sortutako dinamika du inspirazio iturri ekimenak.

El Ayuntamiento de Bergara, en colaboración con Olatukoop, HUHEZI y Debagoiena 2030, está desarrollando una iniciativa cuyo objetivo es promover experiencias y proyectos comunitarios. Será un espacio para escuchar las necesidades de la ciudadanía y dar una respuesta colectiva a las mismas.

Turismo jasangarria sustatzeko plana lantzen ari da Udala sektorearen parte hartzearekin

2020. urtean, Bergarako Udalak turismo plan berria behar zela ikusi zuen, eta horrela egitea jaso zuen Gobernuak Bergara izan, bizi, ekin planean.

2009an, Bergarako Udalak 'Bergarako ondare kulturalaren interpretazio eta dinamizazio plan' baten erredakzioa kontratatu zion Stoa enpresari. Ondare historiko eta kulturala, eta batez ere, hezkuntza ondarea eta ondare zientifikoaren balioak nabarmentzen zituen.



Proposamen horretan hainbat ekimen aurreikusten ziren eta dagoeneko horietako asko gauzatu dira. Halaber, ondorioztatu da kulturaren eta ondarearen gizarteratzean hobekuntza asko egin direla, baina turismoaren gaian beharrak ikusi dira. Batetik, urte dezente pasa direnez aldaketa asko gertatu dira, baita turismoaren sektorean ere, eta bestetik, estrategia global bat beharko litzatekeela ikusi da.

Oraingo planaren helburua bikoitza da: turismo jasangarriaren ikuspegitik Bergarako turismo eremuaren diagnostikoa egitea; eta turismo plangintzaren abiapuntua ezartzea.

Diagnostikoa abiapuntu hartuta, helburu eta ildo estrategikoak zehaztuko dira, eta baita adostutako helburuak lortzeko 2022-2025 epealdirako egin beharko den ekintza plana ere.

Sektoreko eragileekin partekatzen ari da prozesua; hotel, landetxe, jatetxe, turismo zerbitzu enpresak... Galdetegi bati erantzutea izan da sektoreak egin duen lehen ekarpena. Eta bi topaketa ere egin dira ondoren, apirilaren amaieran lehena, eta ekainaren amaieran bigarrena.

Lan-taldearekin formulazio estrategiko, jarduera programen ardatzen zirriborroa landu dira lehenik, eta ondoren 2022-2025 urteetarako ekintza-planaren zirriborroa. Aurreikuspena da udazkenerako lana amaituta egotea.

Gasteizko Beinke enpresari esleitu zitzaion kontratua eta bera ari da prozesua dinamizatzen.

Herriko turismo sektoreak bi topaketa egin ditu gaia lantzeko.

El Ayuntamiento de Bergara está trabajando en un plan de turismo sostenible. En el proceso de elaboración está trabajando de forma activa el sector turístico del municipio. A parte de rellenar una encuesta en la fase de realización del diagnóstico ha participado en dos encuentros. El plan estará finalizado para otoño.



Aroztegi aretoko batzordeak ez du lan erraza izan 2021. urteko egutegia osatzen, artista askok egin baitute lanak erakusteko eskaera. “Jasotako eskaerak asko izateaz gain, kalitate handikoak ere izan dira proposamenak. Guztiak aurtengo egutegian sartzeko aukerarik ez egoteak eragin du proposamen interesgarriak programatik kanpo utzi behar izatea”, Kristina Markina Kultura zinegotziaren esanetan.

Artista bakoitzaren ibilbide artistikoa, curriculum eta euskarri ezberdinetan aurkeztutako obraren kalitatea hartu dira kontuan egutegia osatzeko orduan. Arte plastiko ezberdinen arteko oreka ere bilatu nahi izan du Aroztegi aretoko batzorde mistoak, eta artisten sexuari erreparatuta, aukera berdintasunari eta artisten sexuaren arabera oreka bilatzeari ere bai.

Artista bakarren baten obra gonbidapen bidez Aroztegi aretora ekartzea ere erabaki du: Lorenzo Askasibar eta Jesus Maria Lazkano izan dira aurtengo gonbidatu direnak.

Jesus Mari Lazkano margolari bergararraren 'Lazkano. Bitakora koaderno' erakusketa apirilaren 16tik maiatzaren 23ra egon da Aroztegin. Naturako paisaiak erakusten ditu: itsasoa, mendi elurtuak eta 2017an Artikora egindako espedizioan jasotakoak. Azken hori jasotzen duen dokumentala ere aurkeztu zuen Seminarixoa.

Lorenzo Askasibarren erakusketa maiatzaren 28tik ekainaren 20ra arte egon da Bergaran. Askasibarren ibilbide artistikoari aitortza ere egin zaio, hiru jardueraz osatutako omenaldiarekin. Bergarako Udalarekin batera aritu dira azken urteotan lanean Miguel Lazpiur, Jose Mari Larrañaga, Iñaki Arregi, Miguel Angel Elkoroberezibar, eta Beart elkarte Askasibar artista elgetarraren omenaldia prestatzen.

'Lorenzo Askasibar eskultorea atzera begirakoan' erakusketak, Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzitako 'Eskultore baten testigantza' liburuaren aurkezpenak eta udaletxean egindako ekitaldiak osatu dute omenaldia.

Urtea amaitu arte egongo da zer ikustea Aroztegin. Hauek dira epe laburrean egingo diren erakusketak: uztailaren 16an zabaldu zen Cristina Chuiquin Guatemalako fotokazetari eta foto-dokumentalistaren 'Askotariko emakumeen eguneroko borroka' erakusketa abuztuaren 8ra arte egongo da ikusgai. Abuztuaren 13tik irailaren 5era Celia Eslava izango da bere lanak erakutsiko dituen.

Punta-puntako artisten lanak Aroztegi aretoan

La oferta de la sala de exposiciones Aroztegi ofrece este año exposiciones de artistas de máximo nivel. Han expuesto sus obras, como artistas invitados Jesus Mari Lazkano (Bergara) y Lorenzo Askasibar (Elgeta).

2030eko herria elkarlanean egiten ari da Bergara

Begarako Udalak *Bergara 2030 egin herrixa* plan estrategikoa martxan jarri du 2030eko Bergara herritarren artean nolakoa izatea nahi dugun adosteko. “Eman diogun izenak berak adierazten du bere izaera. Denon artean etorkizuneko herria diseinatuko dugu eta prozesu parte-hartzailearen bitartez herria, komunitatea egingo dugu” azaldu zuen Gorka Artola alkateak martxoan egindako aurkezpenean.

Herritarren partaidetzarekin gauzatzen ari da prozesua, horretarako, une, gune eta formula ezberdinak erabiliz; hala nola, galdetegiak, sektorekako bilerak edota batzar irekiak.

Plan estrategikoaren diseinua eginda, 2030era begirako helburuak jartzeari ekin diote parte-hartzaileek. Horretarako hainbat bilera egin dira herriko eragile eta norbanakoekin, arlo desberdinak jorratuz: mugikortasuna eta lurralde antolaketa, ekonomia, kultura, kirola, euskara, hezkuntza, etab. Apirilaren erdialdean aurkeztu zen diagnostikoa izan da lanerako oinarria.

Saio hauetan jasotakoarekin eta udalean egiten ari den barne lanketarekin, plan estrategikoaren helburuak,



lehentasunak eta ekintzak markatuko dira. Ildo horretan ari da lanean talde eragilea.

“Udala herritarrekin oso eskertuta dago izaten ari den parte hartzearekin, eta herritarrak zein eragileak erakusten ari diren lanerako eta ekarpenak egiteko prestutasunarekin”, Ekaitz Aranberri Zezeaga Herritarren batzordeko arduradunaren hitzetan. “Bergara herri bizia eta parte hartzailea dela oso argi gelditzen ari da”, eskerrak ere eman nahi dizkie parte hartzen ari direnei Udalaren izenean.

AZOKA BIZIBERRITZEKO PROZESUA AMAITZEAR DA

Plan estrategikoaren prozesuaren paralelo, baserriarren azokari buruzko hausnarketa prozesua ere abiatu zen. Talde bat osatu zen, eta hiru bilera saio egin dira Azokan bertan. Dagoeneko helburuak eta ekintza plana diseinatu dira, eta laster, jasotakoaren emaitzak aurkeztuko zaizkie herritarrei.



El Ayuntamiento de Bergara ha puesto en marcha el plan estratégico *Bergara 2030 egin herrixa* para consensuar con la ciudadanía cómo queremos que sea la Bergara de 2030. El proceso se está llevando a cabo con participación ciudadana, utilizando para ello diferentes momentos, espacios y fórmulas, como cuestionarios, reuniones sectoriales o asambleas abiertas.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunean urrats berriak egiteko plana gertatzen ari da Udala

Pertsonen arteko berdintasuna bermatzea da Bergarako Udalaren jardunaren oinarrietako bat. Ainhoa Lete Zabaleta Berdintasun zinegotziak legealdiaren bi urteko balorazioa egiterakoan esan zuenez: “herri parekidearen bidean urratsak ematen ari gara, teknikariaren lanpostua egonkortzeaz gain, berdintasun plan berria eginez, jabekuntza eskolak indartuz edota Berdintasun Kontseilua indartuz”.

Une honetan buru belarri dabil Udala Berdintasun Planaren lanketan. Berdintasun Kontseiluak apirilean egin zuen bileran aurkeztu ziren II. Berdintasun Planaren ebaluazioa egiteko prozedura eta III. Berdintasun Plana egiten hasteko proposamena. Prozesu parte-hartzailea izango da. Udaleko langile eta arduradun politiko, gizarte eragile, ikastetxe, elkarte eta norbanakoen partaidetza sustatuko da bide ezberdinak eskainiz. Izan ere, covid-19ak eragindako egoerara moldatuko dira tresnak.

Irailean amaituko da bigarren planaren ebaluazioa, eta aurreikuspena da udazkenerako plan berria diseinatuta edukitzea.

Bergarako II. Berdintasun Planaren xede nagusia, udalean bertan eta udaletik herrirako egiten diren ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzea izan da. Era berean, herriko eragile desberdinen inplikazioa ere ezinbestekoa izan da planaren diseinuaren zein exekuzioan zehar. Elkarlanean eta parte-hartzean oinarritu da orain arteko lana, eta aurrerantzean ere hala izango da.

Bergarako III. Berdintasun Plana egiterakoan bi erreferentzia nagusi jarraituko dira: otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerakoa; eta EAEn indarrean dagoen Berdintasunerako VII. Plana.

Urte amaierarako amaituta egongo da III. Berdintasun Plana. Emakunderen diru laguntza bat jaso du proiektuak.

Emakumeen ahalgintza lantzeko hainbat saio egin dira aurretik.

Garantizar la igualdad entre las personas es una de las bases del trabajo del Ayuntamiento de Bergara. En ese sentido está llevando a cabo numerosas actuaciones. Una de ellas es el Plan de Igualdad entre mujeres y hombres. En este momento se está realizando la valoración del segundo plan para a continuación elaborar el tercero.

Eli Dominguez
(Bergara, 1985)

NDANK NDANK
ELKARTEKO
KOORDINATZAILEA

“Integrazioa alde biko prozesua da, eta ez alde bakarretik egin beharreko lana”

Ndank Ndank elkarte 2011ko azaroan sortu zen, helburu bikoitzarekin: senegaldarren eta euskaldunen artean kulturartekotasuna bultzatzea, eta Dionewar herrian garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatzea. Elkartea errotuta dago Bergaran bezala Debagoienan, eta hainbat proiektu ditu eskuartean. Horien inguruan jardun dugu Eli Dominguez koordinatzailearekin.



Izaera oso desberdineko ekimenak antolatzen ditu Ndank Ndank elkarteak.

Urteetan zehar proiektu txikiak eta ekintza puntualak egin izan dira Debagoienan. 2019an, berriz, salto bat eman genuen proiektu berri batekin: 'Elkarbizitza eta Elkartasun programa' eta horrela elkarrekin bi helburuak bateratu egin ziren. Taldetxo bat sortu zen bailarako jendearekin, eta ekintzak egin ziren Debagoienan eta Dionewar-en. Zubia sortu zen bi herrien artean eta hori indartzen jarraitzen dugu.

Zergatik Dionewar-en?

Hemen bizi diren senegaldar gehienak hangoak dira.

Zer duzue une honetan eskuartean?

Une honetan bi proiektu ditugu martxan: Elkarbizitza eta Elkartasun programa, covid-19aren egoeratik egokitzen ari garena. Aurten, kulturartekotasuna jorratzeaz gain, migrazioaren gaiari eman diogu garrantzia. Azken aldian, hedabideetan, gaia

gizatasuna kenduta lantzen da: dena dira datuak; eta bestetik, gizarte mailan ere, mezu arrazistak zabaltzen ari dira. Horri aurre egiteko migrazioaren gaia eskoletan landu dugu, 4. DBHn. Amets Arzallusen *Miñan* liburua oinarri egin genuen lanketa, berarekin egindako solasaldiarekin. Horren ondoren idazlan lehiaketa egin da hiru ikastetxeen artean. Eta herri mailan ere hitzaldia eman zuen Arzallusek. Bestetik, Teranga dokumentala ere estreinatu berri da, MUKO ikasleekin elkarlanean egin dena. Hausnarketa eragiteko tresna bat da.

Migrazioaren gaia gizatasuna kenduta lantzen dela diozu, nola irauli hori?

Migratzaileei ahotsa ematean dago gakoa. Emigrazio bidaia hasten denetik hona heltzeraino bizitzen dutena konta dezaten, baina oraindik ezezagunagoa dena, hona heltzean aurkitzen dituzten trabak. Adibidez Miñanen egiten den moduan, lehen pertsona kontatzen da migratzaile batek egin duen bidaia. Teranga

dokumentalak batez ere jasotzen du hemen egonda zer nolako trabak izaten dituzten.

Zer nolako trabak?

Batzuetan komentatzen dute pisua jartzen dela migratzaileek integrazteko egin behar duten esfortzuan, baina ez da aztertzen, guk, gizarte bezala, bai administratiboki eta gizarte mailan egin ditzakegun egokitzapenak edo esfortzuak migratzaileak gustura egon daitezen, eta integrazio hori eman dadin. Alde biko prozesua da eta ez alde bakarretik egin beharreko lana.

Ez gara jartzen bestearen lekuan?

Nik uste dut bakoitza bere burbuilan gaudela, eta ez bazaizu gertutik gertatzen ez duzula ikusten. Ezjakintasuna dago orokorrean. Ezjakintasunarekin batera interes falta ere egon daiteke, errezeloa ezezagunarekiko, bereziki kolektibo batzuekiko. Senegaldarren kasuan, zentzu horretan, jendeak beste kolektibo batzuekiko baino ikuspegi positiboagoa daukala esango nuke.



Nola da integrazioa?

Herrietan etorkinek lekua lehenago topatzen dute, baina hirietan zailagoa da.

Bergaran elkartea ondo errotuta dago.

Bai, hasieratik. Bai administrazio mailan, eskualdeko udalengandik, eta herriko jendearen aldetik babes hasieratik sentitu dugu. 2019an, aipatutako proiektuari esker jauzia eman genuen eta orduan sartu ginen ere Bizipoza sarean. Ordutik elkartea handitzen joan da, nahiz eta oraindik txikia izan, eta horrek eman digu aukera ekintza asko aurrera eramateko.

Dionewar-en zertan ari zarete une honetan?

Orain arte egindakoak gauza txikiak izan dira, batez azpiegiturak hobetze aldera, eskolan eta anbulatorioan.

Ikasleekin ere ari zarete.

2019an herriko Ceed Sangomar ikasleen elkartea gurekin harremanetan jarri zen eta zeuzkaten beharrak komentatu zizkiguten. Alde batetik ikasketak

jarraitzeko zailtasunak dituzte, Dakarrera joan behar izaten baitute, eta askok ez daukate horretarako aukerarik. Ikasle pisu baten beharra zeukatela aipatu ziguten, eta bi ikasturte dira 15 ikasleentzako ikasle pisua finantzatzen dela Bergarako Udalaren diru-laguntzekin.

Kulturari lotutako proiekturen batekin ere ari zarete, eta?

Herriak ez zeukala ez topagunerako, ez biltzeko, ez aisialdirako lekurik komentatu ziguten, eta lan aukerak ere murriztak zirela bertan. Pentsatu zuten kultura eremu bat eraikitzea interesgarria izan zitekeela, aisialdiaz, kulturaz-eta gozatzeko espazio bat edukitzeko, topagune gisa, eta horrek, aldi berean lan aukerak eman zitzaieela turismo jasangarria egiteko.

Eta, zertan da?

Kultura eremuaren lehen eraikina amaitzen ari gara, erabilera anitzeko espazioa izango dena, eta asmoa da eremua zabaltzen joatea. Hurrengo urratsa izango da artisau tailerra, eskola eta denda sortzea. Herriko artisautza indartuko da eta lanbidearen

La asociación Ndank Ndank nació en noviembre de 2011 con un doble objetivo: impulsar la interculturalidad entre personas senegalesas y vascas, y llevar a cabo proyectos de cooperación para el desarrollo en la localidad de Dionewar. La asociación está arraigada tanto en Bergara como en Debagoiena y tiene varios proyectos entre manos.

transmisioa bermatuko da. Hor kokatu nahi dugu MUko ingeniaritza eskola sortzen ari den plastikoa eraldatzeko makina. Herriak ez dauka hondakinak kudeatzeko sistemarik, eta plastikoa jaso eta artearen bitartez beste erabilera bat emateko aukera eskaini dezake honek. Gazteak hona etortzen direnean aztertu daiteke zer eta nola egin.

Euskal Herrira etorriko dira gazte horiek?

Aurtengo berrikuntza da haiek hona etortzea. Oso mitifikatuta daukate Europa eta lehen eskutik ezagutzeak lagunduko die.

Bizipoza sarean sartu zineten eta aurten festa ere antolatu duzue.

Gonbidapena jaso genuen sarean sartzeko eta ikusten genuen oso egokia zela, batez ere, gure seme-alabei begira. Bi kulturetan, bi errealitateetan hazi behar dira, eta horrek ere lanketa behar du identitate sendo bat gara dezaten. Festaren testuinguruan, hilabete osoan gauza asko landu ditugu herrian zein ikastetxeetan. Adibidez, hiru ikastetxeetan seigarren mailako ikasleekin landu da 'Non jaio hala hazi'. Senegalgo eta Euskal Herriko bizi baldintzak alderatu dituzte. Baliabide material gutxiago dituztela han ikusi dute, bai, baina beste gauza askotan oso gizarte aberatsa dela ere ikasi dute. Dena ez da materiala.

Recuperar la memoria histórica para poder avanzar

Las asociaciones memorísticas están realizando un arduo trabajo de recuperación de la memoria histórica. El Ayuntamiento de Bergara ve imprescindible recordar la historia y hacer un reconocimiento a las personas que han sufrido las consecuencias de la guerra, el franquismo, etc.

Memoria berreskuratzeko lanean ari da Bergarako Udala hainbat elkartekin elkarlanean. Gerrako haurrei aitortza egiteko ekitaldia antolatu zuten. Frankismoaren kontrako kereila Estrasburgora eramaten Euskal Herriko lehen udalerrria izan da.



En 2017 el pleno decidió, por un lado, interponer una querrela por el genocidio provocado por el franquismo y crímenes contra la humanidad en el juzgado de Bergara. E incluir en la causa criminal 4591/10 que tiene abierta en Argentina la jueza María Romilda Servini, los crímenes de genocidio y humanidad originados por el franquismo en Bergara.

Recorrido el camino judicial en Euskal Herria y el Estado español con resultado negativo, en noviembre de 2020 el pleno decidió llevar el caso a Estrasburgo. Fue el primer municipio de Euskal Herria en llevar el caso a Europa. En este momento se encuentra a la espera de respuesta.

El 23 de abril de este año, el Ayuntamiento en colaboración con la asociación Intxorta 1937 realizó un acto de reconocimiento a los niños y niñas de la guerra de 1936. En el acto, la concejal Ainhoa Lete les dijo: “Fue un viaje de dos direcciones. De ida, escapando de la guerra y buscando un cobijo en el extranjero, gracias al apoyo brindado por diferentes asociaciones o familias. Pero también, años después, la mayoría recorristeis el camino inverso de vuelta, hacia vuestro lugar de nacimiento o vuestra casa”. Y quiso recordar la solidaridad y ayuda que recibieron en el exilio de parte de las familias y las asociaciones.

Una de las personas que ha interpuesto la querrela en Estrasburgo y participó en el acto de abril es Eulogio Díez Sánchez. Partió del puerto de Santurtzi en junio de 1937, en el Habana rumbo a la Unión Soviética, a la edad de 10 años junto con un grupo de niños y niñas (unas 1.500 personas). Hizo el viaje acompañado de un primo. A pesar de ser solo un niño de 10 años, dice que eran muy conscientes de lo que estaba pasando.

Primero atracaron en Burdeos y cuenta que les dieron una bolsita con chocolate y pan francés. Recuerda -de forma admirable- que cuando llegaron al destino que la marea estaba baja, por lo que “aquél gran barco estaba inclinado y tuvimos que esperar hasta el día siguiente para poder desembarcar”. “Nos recibieron como a héroes”, recuerda Díez.

Estuvo en la Unión Soviética 20 años, donde se integró bien “la gente de aquí se juntaba en grupos, pero yo prefería estar con los rusos”. Recorrió gran parte del territorio y tiene muchísimas anécdotas de esa época. “Nos cuidaban mejor que a los de allí, nos daban lo mejor”. “Con 15 años a los de allí les mandaban a la guerra, a nosotros a estudiar”, dice Díez. Reconoce que en aquél momento no le motivaba mucho seguir estudiando en la escuela pero que aprendió mucho.

Se marcharon de la Unión Soviética sin recursos, pues les robaron lo que tenían. Vivió unos años en Castellón, que reconoce fueron tranquilos, no así cuando regresó a Gipuzkoa, pues fue encarcelado.

Zubieta eta Masterreka kaleak 2023ko udarako eraberrituko dira

Uztailaren 6an aurkeztu du herritarren aurrean Zubieta eta Masterreka kaleetarako proiektu urbanistikoa Bergarako Udalak. Seminarixoa egindako bilera irekian, aurretik bi kaleetako auzokideek egindako ekarpenekin moldatutako proposamena aurkeztu da.

Egindako ekarpenen artean jaso da zoruak lau izan behar duela, autoen mugimenduak ahalik eta soinu gutxien eragin dezan.

Ekaineko osoko bilkuran Gorka Artola Alberdi alkateak azaldu zuen moduan obra garrantzitsua da hau herriarentzat, "lehen aldiz urte bat baino gehiagoko aurrekontua baldintzatuko du proiektuak. Hiru urterako aurrekontua konprometituko du, guztira 2.350.000 euro inguru". Udalarentzat aspaldiko inbertsiorik handiena izango da hau.

Proiektu honen exekuzioak baditu hainbat zailtasun, nagusienetarikoa mugikortasunari dagokionez trafikoan izango duen herri mailako eragina. Ibargairekin batera, trafiko gehien jasotzen duten kaleak baitira. Kontuan hartuko da herritarrengan ahalik eta eragin kaltegarri txikiena izan dezan.

Teknikoki ere muga batzuk baditu proiektuak, besteak beste, kaleak oso estuak direlako. Gainera, ibilgailuendako bi norabidekoa izan behar da derrigor, Elosua eta Azkoitirekin lotzen dituen errepidea badelako, besteak beste. Hala ere, oinezkoen lehentasuna emango zaie, eta espaloiak metro eta erdiko zabalerakoak izatea bermatuko da ia ardatz osoan. Aitzitik, ezingo dira bermatu aparkatzeko gaur egun dauden leku guztiak.

2016. urtean Bergarako Zubieta eta Masterreka kaleetako proiektu urbanistikoak prestatu zituen Udalak. Zubietako proiektua BEB arkitektura bulegoak gauzatu zuen eta Masterrekakoa Zetabik.

2021. urtean udalak proiektuak hartu eta lanekin hasteko asmoa azaldu du. Bi proiektu desberdin izan beharrean, egoki ikusi da guztia ardatz bakar moduan hartzea, hori dela eta Zubieta eta Masterreka kaleetako urbanizazio proiektuak ardatz osoan lan eginda exekutatuko dira.

Behin aurrekontua onartuta lizitaziora irtengo da obraren exekuzioa eta aurreikuspen onenen arabera abenduan hasiko dira lanak. 18 hilabete beharko dira lanak amaitzeko, hortaz, 2023ko udarako amaitzea aurreikusi da.

Lanek luze joko dute, eta udalak konpromisoa hartu du bertako bizilagunak obraren mugimendu nagusien inguruan informatzeki dagokionean.



La urbanización de las calles Zubieta y Masterreka comenzará a finales de este año y se prevé que finalizarán el verano de 2023. Tendrá un coste de aproximadamente 2.350.000, la mayor inversión de los últimos años para el Ayuntamiento. El Gobierno municipal se ha comprometido a informar a la ciudadanía de los momentos importantes de la obra.

Aitor Eraña

POL-POL MENDI
TALDEKO
PRESIDENTEA

“Gustatuko litzaidake Pol-Poleko hurrengo presidentea emakumea izatea”

80 urte beteko ditu Pol-Pol Mendi Taldeak 2022an. Testuinguru horretan Aitor Eraña Pol-Pol taldeko presidentearekin jardun dugu. Egin duen ibilbide luzea, taldearen osasuna eta beste hainbat gai izan ditugu hizketagai.

Ibilbide luzea egin du taldeak. Liburu batean ere jaso zenuten historia 75. urteurrenean.

1942. urtean sortu zen Pol-Pol Mendi Taldea. Gerra ostea zen. Kontatzen dutenez, elkarteko jendearentzat askatasunerako gunea zen, orain pandemia garaian bezala. Politika gaiak bazterrean utzita, erabaki zuten haien gaia mendia zela, eta ibilbideak antolatzen hasi ziren. Emakumeak ere ibiltzen ziren. Kalean gonarekin ibili behar zuten, baina galtzak janzen zituzten mendian gora zihoazela.

Horrela izan zen sorrera. Ondoren?

Hurrengo garaian, Pol-Poleko kideak ez ziren bakarrik mendira

joaten. Talde bezala gogotsu zebiltzan. Auzolana handia zen garai hartan. Lokala Komenio kalean zegoenean, eta taberna zabaldu zenean, Bergarako koadrilak ziren han lan egiten zutenak. Horrek kontaktua, harremana zekarren, gaur egun faltan botatzen dena.

Gaur egun ere oso inplikatura zaudete herriaren bizitzan.

Mendira irteerak antolatzeaz gain, beste hainbat jarduera egiten ditugu. Danborrada dela, Bergara oinez, Ehun milak antolatzen dituztenean guk ere laguntzen dugu. San Silvestren. Eskalatzaileekin aritzen gara, izan ere, haietako asko Pol-Poletik pasatakoak dira.

Mendiarekin zerikusia ez duten gauzetan ere parte hartzen dugu.

Adin desberdineko jendea biltzen da zuenean?

Arrakasta gehien duen taldea beteranoena da. Denbora gehien daukagunak gu gara, baita mendira joateko lehengo ohiturak ditugunak ere. Urtero irteera bat ere egiten dugu astebeterako. 20-30 urte arteko taldea ere gogotsu dabil, 25-30 lagun elkartzen dira. Orainxe irteera bat egin dute, eta Pirinioetara joatekoak dira. Mendia bizirik ere inplikatura dago gurean. Lehen argazkilari talde bat ere egon zen.

Hasieratik ibili dira, hortaz, emakumeak taldean?

Bai. Parte hartzaileen artean, beteranoetan, erdia emakumeak dira. Gazteetan ere emakumeak badaude. Ordua da erreleboa hartzerakoan haiek ere egon daitezten. Oso garrantzitsua da, sentsibiltate desberdina ere badutelako. Kosta egiten da ardurak hartzea, eta pauso hori eman behar da. Gustatuko litzaidake Pol-Poleko hurrengo presidentea emakumea izatea.

Eta pandemia garaian jende gehiago hurbildu zaizue?

Bai. Iaz, 470 pertsona zeuden federatuta. Aurten, momentuz 600. Ikusi da zein onura dakartzan ibiltzeak... hori izango da pandemiak utziko digun gauza ona. Aire librean ibiltzearen onura agerian geratu da. Askok deskubritu du, gainera, antolatuta joanda, bestela ezagutuko ez lituzkeen lekuak ezagutzeko aukera dagoela.

Urteurrenean pentsatzen hasi zarete?

Momentuz ez.

Aitor Eraña es el presidente de Pol-Pol Mendi Taldea. A un año de que se cumplan 80 años de la fundación del grupo hemos hablado de los comienzos del grupo. De su participación en la vida del municipio, de cómo la pandemia ha ayudado a que más gente vea el lado positivo del montañismo, etc.

Ortu komunitarioak 2022ko udaberrian martxan

El Ayuntamiento de Bergara tiene previsto poner en marcha las huertas comunitarias en la primavera de 2022. En la última reunión abierta realizada en el marco de este proyecto con la ciudadanía se aclaró la ubicación de las mismas: San Joxepe.

Apirilaren 28an abiatu zuen Bergarako Udalak herritarrekin Jorran, ortu komunitarioen proiektuaren lanketa UNEDen egindako bileran.

Herrian gaiaren inguruan dagoen eskaera errealaren argazkia egin zen bertan. Lehen bileran horretan parte hartu zuten pertsonek (50 baino gehiago) ortu komunitarioen inguruan dituzten premiak, gogoak, helburuak... azaldu zituzten.

“Proiektua integrala izatea nahi dugu, horregatik, norbanakoen ortu soilez haragoko ekimen berri, berritzaileak gauzatu nahi dituztenek ere euren lekua topatuko dute ekimenean”, Ekaitz Aranberri Zezeaga zinegotziaren esanetan. “Lehen bileran bertan ikusi dugu ortuen inguruan jendeak ideia eta proiektu desberdinak dituela, halaber, Udalak bazekien herri mailan badagoela gaiarekiko eskaera baina ez zen horrenbestekoa aurreikusten”, azaldu zuen Aranberri lehen bileraren ondoren.

Prozesu osoa herritarrekin eta eragileekin batera egin nahi du Bergarako Udal Gobernuak, lehenago ere azaldu duen moduan. Helburuak, kokapena, arautegia eta funtzionamendua, besteak beste, partaidetza prozesu baten bidez zehazten ari dira.

Ekainaren 24an egindako bigarren bilera irekian, aurrerapauso batzuk eman ziren. Esaterako, argi geratu zen ortuetan interesa agertu duten herritarrek duten lehentasunetako bat: “datorren udan bertan ereindako tomateak jan nahi ditugu”. Eskaera horrek adierazten du herritarrek ahalik eta lasterren hasi nahi dutela ortuetan lanean, eta horrela, aurretik kokalekuaren inguruan zegoen galderari erantzun zaio. Aranberriren hitzetan, “San Joxepekoa da kokaleku aproposa. Baldintza teknikoak betetzen ditu eremuak, eta lanak laster hasteko aukera ematen du”.

Hiru-lau hilabete inguru beharko dira lanak egiteko, hortaz, aurreikusi da 2022ko udaberriarako martxan egon daitezkeela ortuak. Aurreproiektuak jasotzen du 45 metro² 70-80 partzela sortuko direla.

Sara Alonsok, Julene Etxaurik eta Xabier Vallinak landu dute Jorran ortu komunitarioen proiektua alderdi komunikatibotik. HUHEZIn komunikazioa ikasi dute, eta gradu amaierako lana izan da Bergarako Udalarentzat egin dutena.





Emakumeei omenaldia 'Kotoiaren Emakumeak. Bizi istorioak' erakusketan

Fanny Alonsoren Kotoiaren Emakumeak erakusketak hainbat diziplina batzen ditu, eta horien guztien helburua da Bergarako Algodonera de San Antonio eta Andoaingo La Algodonera lantegian lan egin zuten emakumeak ahanzturatik

berreskuratzea eta haien bizi istorioak kontatzea. Oso baldintza gogorretan lan egiten zuten arren, bai fabriketan eta baita etxean ere, emakume bizi, alai eta eskuzabalak izan ziren. Aurkezpenean, garai hartan Bergarako lantegian lanean aritu ziren hainbat

emakume egon ziren, haien bizipenak kontatu dituztenak erakusketarako. Hasiera batean, Kotoiaren Emakumeak Fanny Alonsoren moda jasagarri proiektu bat bezala jaio zen, eta pixkanaka kutsu kulturala hartzen joan da. Guztiz jasagarria da erakusketa. [1]

'Bergara loratzen' lehiaketaren sariak banatu dira

Ane Miren Etxebestek (alabak jaso zuen saria haren izenean), Elisabeth Urrutiak eta Kontxi Leturiak irabazi dituzte aurtengo 'Bergara loratzen' lehiaketako sariak: Bergarako dendetan erabiltzeko 400, 200 eta 100 euroko bonoak. Ekainaren 16an Oxirondon egindako ekitaldian banatu zizkien sariak Ainhua Lete

alkateordeak. Lehiaketaren helburua bikoitza da: batetik, balkoiak eta leihoak zaintzen eta apaintzen jarraitzea; edo horren ohitura berreskuratzea; eta bestetik, apainketak ingurugiroari eta herriaren itxurari ekartzen dizkion onurei ere balioa ematea, naturari keinu bat egitea, alegia. [2]



Gernikako arbolaren kimu bat dago Bergaran

Iparragirre kalean dago Jose Antonio Aperribaik Bergarako Udalarik dohaintzan emandako Gernikako arbolaren kimua. Ekainean jarri diote udal langileek babesteko hesia eta plaka. Erdi lehortuta zegoen Gernikako arbola zaharretik ezkurra jaso zuen Aperribaik 2003. urtean. Ondoren, 2004ko udaberrian landatu zuten Capbreton-en (Landak). 2021eko otsailean Bergarara ekarri aurretik Oñatin ere egon zen. Bergarako Udaleko lorezaintza taldeak bi urtez prestatu zuen lurra, eta ureztatzeko tantaz-tantako sistema ere ezarri zioten. [3]





Balorazio ona egin du Udal Gobernuak legealdiko lehen bi urtetan egindako lanaz

“Bi urte berezi izan dira, seguruenik ez esperotakoak eta COVID-19ak guztiz baldintzatu dituenak. Atzera begira jarritz eta balantzea eginda uste dut ona izan dela. Jakin dugu egokitzen egoera berrira eta Bergarak behar zuen erantzun hori ematen”, Gorka Artola alkatearen esanetan. Gehitu du egoera berrira moldatuta ere, “gure iparra eta oinarriak ahaztu gabe” lan egin dutela. “Beti pertsonak erdigunean, eta elkarlanean”.

Gorka Artola alkatearekin batera aurkeztu zuten balorazioa Ainhua Lete, Nagore Iñurrategi eta Ekaitz Aranberri zinegotziek. Iñurrategik auzoetan egiten ari den lana nabarmendu du: “Indar berezia egiten dugu interes orokorra eta tokian tokiko beharren arteko oreka topatzen, beti erraza izan ez arren. Auzoak erdigunera ekarri ditugu eta hainbat interbentzio egiten ari gara herritarren bizimodua hobetzeko”. Baserri bideetan egindako lanak eta Uberako eskola-etxea auzokideentzat lagatzea jarri ditu adibide.

Beste hainbat proiektu eta lan gauzatu ditu Gobernuak epealdi honetan. Memoria berreskuratzeko hainbat ekinbide gauzatu ditu. Elkarlana da Gobernu honen jarduteko moduan; ildo horretan, kultura mahaia, ikastetxeekin elkarlana edota beste hainbat aipa daitezke. Barne antolaketan ere aldaketak egin ditu eraginkorragoak izateko helburuarekin. [4]

Udara egokitu da kirol eta kultura eskaintza

Aurten ere Agorrosingo Ekintza Guneak udarako proposamena egin du. Ekainaren 11n zabaldu dira kanpoko igerilekua eta ur txorrotak. Haurrendako kirol kanpua, haur, gaztetxo eta helduendako ikastaroak ere eskaini dira. COVID-19ak eragindako osasun pandemiara egokitutako proposamena izan da. Esaterako, haurrendako jardueretan eskoletako burbuilak mantendu dira. Bereziki arrakastatsua izan da kirol kanpua, izan ere, aurreikusitako plazak bikoiztu egin baitira eskaerari erantzuteko.

Kulturari dagokionean, ekitaldiz josita dator uda. Kontzertuak, ikastaroak... egingo dira herrigunean nola auzoetan. Uztaileko ostiraletan Berumuga kontzertuak egin dira, Usondo parkean kontzertuak... Hainbat hilabetetan beren jarduna etenda izan ondoren, Bergarako Musika Banda eta Bergarako Txistulari Banda emanaldiak eskaintzen hasiko dira.

“Uste dugu une honetan bereziki dela garrantzitsua herritarrei aisialdirako espazioak eskaintzea, eta Bergarako Udalaren asmoa da hori bermatzea”, Aitor Aranzabal Kirol zinegotziak Agorrosingo aurkezpenean azaldu zuenez. [5]

Espazio publikoen okupazioaren udal ordenantza berritzeko bilera irekiak egin ditu Udalak

Tabernariak eta merkatariek espazio publikoen okupazioaren udal ordenantza berritzeko dituzten ekarpenak inkesta bidez jaso ondoren bilera irekiak egin dira. Uztailearen 13an egindako hiru bileratan jaso dira merkatarien, ostalarien eta herritarren ekarpenak.

Aurretik landa lana egin zuen Hiritik at enpresak, prozesuari hasiera emanez. Urte amaierarako behin-betiko ordenantza prest egotea aurreikusten du Udalak. [6]

Aldaketak udalbatzaren osaeran

Ekaineko osoko bilkuran utzi zuen zinegotzi kargua EH Bilduko Itsasne Luarizaristik, eta Irailean hartuko du bere lekua Zihortza Marzanek. Luarizaristik osoko bilkuran azaldu zuenez, “dedikazio handia eskatzen du zinegotzi izateak eta azken denboraldian ezin heldu nenbilen, eta egoera ez zen hobetuko aurrerantzean. Horregatik onena beste bati lagatzea da”. Askok ikasi duela esan zuen, eta herritarrak udalean parte hartzera gonbidatu zituen.

Martxoan Elena Lete EAJ-PNVko bozeramaleak ere uko egin zion karguari. Kargua uzteko arrazoiak azaldu zituen: “Pertsonalak dira motibo nagusiak. Nire familiak dedikazio berezia eta osagarria eskatzen dit eta bateraezina da gaur egun Udalean dudana zinegotzi karguarekin”. Apirilaren 26ko ohiko osoko bilkuran hartu zuen Martin Etxanizek zinegotzi kargua Letek utzitako hutsunea betez. Zinegotzi izan aurretik sustapen batzordeak parte hartzen zuen Etxanizek. [7]

(1) Homenaje a las mujeres a través de la exposición de Fanny Alonso 'Mujeres del algodón'. Se puede visitar en Laboratorio Museoa hasta el 10 de octubre. (2) Se han entregado los premios del concurso de decoración de balcones y ventanas 'Bergara loratzen'. (3) Se ha plantado un retoño del árbol de Gernika en la calle Iparragirre. Se trata de una donación de José Antonio Aperribai. (4) El Gobierno Municipal valora positivamente los dos primeros años de legislatura. Se ha centrado en trabajar poniendo a las personas en el centro. (5) Bergara adapta su oferta cultural y deportiva al verano. (6) El Ayuntamiento celebra reuniones abiertas para renovar la ordenanza municipal de ocupación de espacios públicos con el sector de la hostelería, el comercio y la ciudadanía. (7) Cambios en la corporación. Zihortza Marzan va a sustituir a Itsasne Luarizaristi en el cargo de concejal por EH Bildu. En abril Martin Etxaniz sustituyó a Elena Lete de EAJ-PNV.



Laboratorium museoa: zientzia, ondare eta gizarte topagunea

Bergarako Laboratorium museoa Errekalde jauregian dago. Jauregi handia, argia, eroso, ondo hornitua eta prestatua, ingeles estiloko lorategi zoragarri baten erdian kokatuta. Zientzia zaleek gozatu ederra hartzen dute etxe honetan, duela sei urte ireki zenetik. Eraikina bera da ederra –hemen bizi izan zen Xabier Maria Munibe, Peñafloidako VIII. kontea– baina altxorrek zientzia bildumak dira. Erakusketa ikusgarria da benetan! Erakusketa iraunkorrek, zientziaren garapenari esker gizartea nola joan den aldatzen erakusten digu, eta krisi egoera bati aurre egitea nola lortu zuten.

Bergara Zientziaren sorlekua da Euskal Herrian, euskal ilustratuek sortutako Errege Seminarioari esker. Bertan, duela 250 urte inguru, ilustratu talde batek proiektu berri bat sortu zuen, gerora elementu kimiko berri bat, wolframa, isolatzeko/aurkitzeko aukera emango zuena espiotza proiektu zientifiko bat tarteko. 2018an, European Physical Society-k (EPS, www.eps.org), Historic Site izendatu zuen Laboratorium Museoa. 2018ko urriaren 20an izan zen ekitaldi ofiziala eta izendapen horrekin, Laboratorium Europako zientziaren erakusleihoan jarri zuen.

Baina garbi izan behar da Laboratorium ez dela soil-soilik erakusketa bat. Laboratorium, gizarte museo bat da eta museoaren jarduna ez da soilik mugatzen erakusgai dagoen bilduma hori erakustera. Ez da gutxiago ere. Gaur egun oso hedatuta dagoen “Museologia Berria” izeneko korrante museologikoaren barruan txertatu da museo hau. Museologia berri honen giltzarria da museo tradizionalaren parametroak zabaltzea eta demokratizatzea; hau da, museo tradizionaletik museo berrira igarotzen dugunean, museoko bildumetara mugatu gabe, Ondarearen Mundura pasatzen gara (ondare kulturala eta naturala); museora joaten den publikoa ahaztu gabe, gizartea eta komunitatea jartzen dugu ardatz; museoaren eraikuntza mespretxatu gabe, lurralderantz zabaltzen dugu.

Gizarte museoa izanik, formatu ezberdinetako jarduerak antolatzen ditu Laboratoriumek, goian esan bezala, beti herritarrekin eta gizartearekin harreman estua mantenduaz, gizartearen beharrak eta ekarpenak kontutan hartuta. Erakusketak, hezkuntza-programak, hitzaldiak, ikerketa-programak, ikastaroak, txangoak, tailerrak, udaleku zientifikoak, ondare-programak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jarduerak, etab. garatzen ditu elkarlanean. Horrez gain, elkarlanean aritzen da proiektu berritzaileen baitan erakunde desbedinekin (DIPC, Elhuyar, Jakiunde, UNED, MBG, etab.).



D2030



DEBAGOIENA, etorkizunari begira


XXI. mendeak erronka global eta konplexuak ipini dizkigu mahai gainean. Krisi klimatikoak eta jendarteko arazo konplexuek – migrazioa, aniztasuna, berdintasunik eza –, ezagutzen dugun garapen eredua berrasmatzera garamatzate. Gizarte justu eta humano baten beharra, bai eta iraunkortasuna erdigunean jartzearena, egungo eta etorkizuneko belaunaldiendako bermea izango dira.

Hain zuzen ere erronka globalei tokiko eskalatik erantzuteko helburuarekin ekin zion bideari 2019an, Debagoiena 2030 ekimenak. Ekimenaren misioa, honakoa: 2050erako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena bateranzko eraldaketa bultzatzea.

Hala, helburu horrekin bat egiten duten ahalik eta eragile eta herritar gehienek bat egitea da ekimenaren nahia. Gaur gaurkoz, 25etik gora dira modu baten edo bestean ekimenari lotuta daudenak: Debagoieneko Mankomunitatea, kooperatibak, unibertsitatea, ikerketa eta berrikuntza arloko eragileak, baita eta eskualdeko udalak ere... eta, tartean, Bergarakoa.

LEHEN EKINTZA MULTZOA

Eskualdeko eraldaketa bultzatzen hasteko bidean, 14 proiektu ditu martxan D2030 ekimenak. Horietako hirutan, Bergaran kokatuta dauden erakundeak dira sustatzaile: Ereindajan, Migel Altuna eta Jardun. Ereindajan Bergarak D2030ekin elkarlanean martxan duen proiektua da Jangelak hornitzeko Debagoieneko plataforma. Bestea litzateke Miguel Altuna Institutuak beste eragile batzuekin batera martxan dituen Talent House eta Industria inguruneetako ikaskuntza-soluzioak deiturikoak. Azkenik dago DAP (Debagoieneko Antzerki Plataforma), Debagoieneko arte-eszenikoen plataforma, kulturaren bitartez eraldaketa soziala bultzatzera bideratua. Azken proiektu honetako kide da Jardun ere.



Joxu Arana,
MIGUEL ALTUNA

Gure hezkuntza esparrua industriari lotutako Lanbide Heziketa izanik, Debagoieneko garapen ekonomikoan ekarpen eraginkorrak egitean jartzen du fokua Miguel Altuna LHII-tik. Hala, D2030 ekimenarekin elkarlanean, bi proiektutan ari gara kolaboratzen. Lehen, talentua erakartzearen ingurukoa: bertako talentua bertako enpresetan mantentzen eta kanpoko erakartzeko eskualde erakargarria bihurtzen lagunduko duen ekimena. Bigarrena, Mondragon Taldearekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Alecop eta Udalaitzekin batera lantzen diharduguna, transformazio digitalak langileengan izango duen inpaktua aztertu eta pertsonen zein enpresen beharrei erantzungo dien ikasteko irtenbideak garatzeko helburuarekin. 2050 urtean, hezkuntza eta industria eremu osasuntsua izateaz gain, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena baten alde lanean jarraitzeko asmoa dugu.



Ainhoa Narbaiza,
EREINDAJAN

Posible al da gaur egun sasoiko eta tokiko menu ekologikoak jatea jantokietan? Nola bultzatu zuzenean hurbileko ekoizle txikiekin hornitzen den jan-gela bat? Esperientzia aitzindariari esker, bestelako eredu iraunkorrak bideragarriak direla ikasi dugu. Euren ikaspenak eta Ereindajanen oinarriak tiraka, jangelen eraldaketa sustatzeko lanean ari gara. Eta aukera oso interesgarriak sortu dira Bergarako hainbat jangelatan. Bide hau ezinbestean, ekoizle, sukaldari eta jantokietako komunitate guztiekin batera egin behar dugu; antolatu eta sentsibilizazioari helduz. Besteak beste, inguruko nekazarien baldintza duinak bultzatu eta lanpostu berriak sortzeko aukera indartsua izan daiteke.

ehbildu

BERGARAKO HERRIPUBLIKA ERAIKITZEN

Laino ilunak, kale añubeak, taberna itxiak, terrazarik ez, enpresetako parkinak hutsik, frontoian pilota hotsik ez, kiroldegian argiak itzalita... Hilabete gogorrek pasa ditugu munduan bezala Euskal Herrian eta Bergaran. Bizitzari heriotzak, lanari lan-gabeziak eta alaitasunari tristurak gain hartu zioten, inoiz amaitzen ez zen amets gaiztoan.

Gogorra izan da, baina gogor aurre egin diogu pandemiari eta honek areagotu duen krisi sistemikoari: osasun krisia, krisi ekonomikoa, krisi ekologikoa, krisi soziala, zaintzaren krisia... Ospitaleak gainezka, langabezia gora, zaborteak behera, zerbitzu publikoak eskas, zaintza lan handienak etorkin eta emakumeen esku... Eta gazteak? Gazteak izan dira krisi honek gogorren kolpatu dituen sektorea: langabezia tasa izugarria, etxebizitza eskuratu ezin, hezkuntza sistema zaharkituak... Eta kalera protestan irten direnean sistemak berriz kolpatu ditu bere instrumentuekin: porrarekin, togarekin, mikrofonoarekin... Langile eta pentsionistekin gauza bera, nor izango da hurrengoa?

Zorionez txarrenari onena ateratzen saiatu gara Bergaran. Grisari kolorea ematen. Bergararrak gai izan gara ehunka lagun zaintza sarean antolatzeko (gehienak gazteak); erosteko ohiturak aldatu eta komertzio txikiari bizirik eusteko; kultura modu seguruan sortu eta kontsumitzeko; muga guztiekin kirola eta aisialdiaz gozatzeko;...

Lana, izugarritzko lana egin dugu, egoera bereziki zailetan: zaintzaileek, dendariak, tabernariak, fabriketako langileak; udaletxeko, hezkuntzako eta osasuneko langileak;...Langile jendea, langile klasea izan da gure herriari zutik eutsi diona.

Herri bat dugu eraikitzeko, Bergarako Herripublikatik Euskal Errepublikara eraikitzen ari gara, Euskal Errepublika egunero eta leku guztietan eraikitzen delako. EHBilduko kideak horretan saiatzen ari gara: Udala Bergarar guztien zerbitzura jarritz; Bergarako Herripublika eta Euskal Errepublika balore sendoen gainean eraikiz: giza eskubideak, justizia soziala eta demokrazia (herriaren boterea). Herri langilearekin batera, ditugun zailtasun guztiei aurre egiten eskuz esku arituko gara, gure onena emanez: krisia kolpatzen ari den herritar guztien alboan; pentsionistekin; tokiko komertzio eta ostalaritza sustatuz, tokiko enpresak bultzatuz; Bergara kultura, kirola eta aisialdiaz gozatzeko herria izateko lan eginez; euskara eta euskal kultura indartuz; munduan zabaltzen ari diren balore matxista, faxista eta ultrakontserbatzaileen aurrean tinko, feminismoa, antiarrazismoa eta balore aurrerakoiak sustatuz; herri hezitzailea eginez, eraldaketa ekosozialean sakonduz.

Eskubideen, bizimodu onaren eta bizipozaren herria eraikitzen jarraituko dugu. Harriz harri, herriz herri, irriz irri, Bergarako Herripublikatik, Euskal Errepublikara!



PLAN ESTRATEGIKOA: BERGARA 2030

2020an, pandemia hasi aurretik, Bergarako Udala Gobernuak plan estrategikoa garatu behar zuela eta, udal ordezkariok elkarlanari ekin genion; izan ere, ardura eta lan handia baita datozen 10 urteetarako Bergara irudikatuko duen plan bat zehaztea.

Hasieratik lanerako gure borondatea azaldu genuen, izan ere, ondorengo ia 3 legealdi baldintzatuko duen plana izatea aurreikusten da. Horregatik, hasieratik, adostasuna ezinbestekoa zela adierazi genuen eta prozeduraren diseinuaren garrantzia azpimarratu genuen. Baina, eztabaidak eztabaida, gobernuak ez ditu aintzat hartu EAJren aportazioak, ezta iritziak: *unilateral*ki lantzen ari da.

Gainera, covid-19ak hainbat ondorio latz ekarri ditu, zalantzarik gabe, birusarekin batera gaixotasuna, heriotza eta gizarte krisia iritsi dira gurera. Horregatik guztiagatik, plana garatu aurretik, ezinbestekoa deritzogu covidaren eraginaren inguruko azterketa egiteari. Izan ere, nola oinarritu daiteke plan bat 77 elkarrizketa eta 106 inkestaren bitartez? Edota, 15 minututan nola irudikatu genezake etorkizuneko Bergara arlo enpresarialean eta lehen sektorean?

Prozeduran zehar argi ikusi dugu EH BILDUK ez duela eredu ekonomikorik, ezta gizartearen ongizatea bermatuko duen eredu enpresarialik. Laburbiduz, EH Bilduren gobernuak asmo gutxiko plan bat osatuko du, nola edo hala, presaz, gehiegi sakondu gabe eta zorroztasun gutxiarekin, eta hori kezagarria eta aldi berean, etsigarria da oposizioan lanean dihardugun alderdiontzat.

Politikan ezinbestekoak da zenbait unetan adostasunak lortzea, tamalez, momentuz, ez da horrela izan; *gure proposamena entzuteko aukera, urtebete pasatu ondoren eman arren, gobernuak bidalitako planifikazioaren barruan gure ekarpenek ez dute inolako lekurik*. Hala ere, oraindik denboraz gaude plan estrategikoa birbideratu eta adostasuna lortzeko, elkarlanerako borondatearekin posible da.

El PNV tiene claro que seguiremos trabajando a favor de Bergara y las y los Bergarese, ya que creemos que también es posible aportar desde la oposición, más aún, en la situación que vivimos. Conocer la situación actual que viven las y los Bergarese será nuestra prioridad. Bergara debe seguir avanzando y mirando al futuro; un futuro que se nos presenta incierto, lleno de retos, por ello seguiremos trabajando por y para Bergara y por todos los proyectos que son estratégicos para nuestro municipio, en respuesta a las necesidades actuales y futuras de la ciudadanía, sin dejar a nadie atrás.

Bergarako EAJ PNV Udala Taldea



GAUDEN EGOERA SOZIOSANITARIOAN, OSASUNA, EKONOMIAREN BERPIZTEA ETA INOR ATZEAN EZ UZTEA DIRA BERGARAKO SOZIALISTEN LEHENTASUNAK

Duela bi urte, dagoeneko, hartu genuen, agintaldi berri baterako, Bergarako Udaleko zinegotzi izateko erantzukizuna. Gure asmoa beti izan da lan konstruktiboa eta gardena egitea, bergararren mesederako izango dena. Gainera, zuen esanetara gaude, zuen ahotsa Udaleko osoko bilkuretan eta batzordeetan entzunarazteko. Baina, askotan, zaila da lan hori egitea, aurrez aurre gehiengo osoa duen EH Bilduko udal-gobernua baitago. Gure iritziz, sekula ez zaio beldurrik izan behar ideien aniztasunari eta pluraltasunari; izan ere, oso positiboa izan daiteke gure herriaren hobekuntza bilatzeko. Nagusiki, Covid-19ak Bergarako familietan, merkataritzan eta ostalaritzan eragin duen krisiaren ondorioak arintzeko neurriak onartzeko indarrak batu behar ditugun une hauetan.

Agintaldi honen hasieraren bereizgarri Covid-19aren pandemia izan da, eta Bergarako PSE-EEKook indarrak batu nahi izan ditugu, osasuna, ekonomia eta gizarte krisi honen ondorioak arintzeko sortu diren ekimenak bultzatzeko.

Testuinguru honetan, Bergarako PSE-EEKook tokiko saltokietan eskola-materiala erosten laguntzeko dirulaguntza sortzea proposatu genuen, bi helbururekin. Alde batetik, eskola-adinean dauden seme-alabak dituzten eta diru-sarrera baxuenak dauzkaten eta egoera txarrean dauden familiei laguntzea. Eta beste aldetik, tokiko merkataritzari bizi duen egoera kritikotik irteten laguntzea. Definituta daude, dagoeneko, laguntza horietara jotzeko irizpideak, 2021-2022 ikasturtearen hasierari begira, sozialistek bultzadari esker; horretarako, Gobernuari martxan jartzeko eta denbora igarotzen ez uzteko eskatu genion.

Sozialistek bereizgarrietako bat, benetako berdintasuna defendatzen dugula da. Hori dela eta, Udalaren Berdintasun arloa sendotzea proposatu dugu. Horregatik, Bergarako PSE-EEK proposatuta, funtzionarioek generoari buruzko oinarritzko prestakuntza jaso ahal izateko partida bat sortu zen. Nagusiki jendaurrean lan egiten duten langileentzako prestakuntza, Bergarako herritarren aurreko kudeaketa egokia eta zuzena izateko, genero-ikuspegitik. Era berean, testuinguru berean, Udaleko langileei genero-ikuspegitik herritarrekiko eta lankideekiko komunikazio egokirako bide emango dien hiztegia egitea adostu zen.

Oraindik agintaldiko 2 urte geratzen dira, eta, ez izan zalantzarik, Bergarako sozialistek lanean jardungo dugu zuen ahotsa Udalera helarazteko. Hori dela eta, kexarik edo proposamenik baduzue eta Udalera eramatea nahi baduzue, erabili gure helbide elektronikoa haren berri emateko. Atsegin handiz lagunduko dizuegu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin ekintza gunea	943 777 095
Anbulatorioa	943 035 400
Correos	943 764 924
Debagoieneko Ospitalea (Arrasaten)	943 035 300
DYA	943 464 622
DYA Antzuola	943 787 157
Epaitegia (Bergara)	943 038 055
Ertzaintza (Bergara)	943 534 720
Foru Ogasuna	902 100 040
Garbigunea (Bergara)	943 764 442
Gurutze Gorria	943 222 222
Gurutze Gorria (San Prudentzio)	943 765 576
Herribusa	943 765 942
IAT (Bergara)	943 769 753
Larrialdiak (Debagoieneko Ospitalekoak)	943 035 300
PESA	900 12 14 00
SOS Deiak	112
Suhiltzaileak	943 415 301
Taxia (Bergara)	943 761 950
Udaltzaingoa	092 + luz.: 1020 943 779 100 + luz.: 1020

BERGARAKO UDAL GOBERNUKO KIDEAK



GORKA ARTOLA ALBERDI
ALKATEA

Antolakuntza arloko batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea
alkatea@bergara.eus



AINHOA LETE ZABALETA
ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko lehendakaria
Berdintasuna
Sustapen Ekonomikoa, Berrikuntza,
Ekintzailetasuna eta Turismoa
Udal Kudeaketa
alete@bergara.eus



AITOR ARANZABAL GALLASTEGI
ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko batzordekidea
Ogasuna
Herritarrak arloko batzordekidea
Kirola
aaranzabal@bergara.eus



KRISTINA MARKINA IGARZA
ALKATEORDEA

Herritarrak arloko batzordekidea
Kultura
kmarkina@bergara.eus



JUAN LUIS GONZALEZ LOPEZ
ALKATEORDEA

Lurraldea arloko lehendakaria
Hirigintza
jlgonzalez@bergara.eus



NAGORE IÑURRATEGI IRIZAR
BOZERAMAILEA

Lurraldea arloko batzordekidea
Auzoak
Ingurumena
ninurrategi@bergara.eus



EKAITZ ARANBERRI ZEZEAGA
ALKATEORDEA

Herritarrak arloko lehendakaria
Euskara
Gazteria
Komunikazioa
Partaidetza
earanberri@bergara.eus



JUANJO ASULA TXURRUKA
ZINEGOTZIA

Lurraldea arloko batzordekidea
Obra eta Zerbitzuak
jasula@bergara.eus



ZIHORTZA MARZAN USANDIZAGA
ZINEGOTZIA

Gizarte Zerbitzuak
zmarzan@bergara.eus
*irailean hartuko du kargua